

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Osteguna, 2010eko azaroaren 25a. VIII. urtea. 2.129. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info



Mintzolan aurkeztu zuten Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteko kideek etzi Villabonan izango den Antzerkizale Eguna. E.MAIZ

Lehen Antzerkizale Eguna, etzi

Pasa den udan sortu zen Villabonako Mintzolan EHAZE taldea, hau da, Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte, eta jada lehen urratsak ematen ari da

Etzi ospatuko dute I. Antzerkizale Eguna Villabonan egun osoko jaiarekin eta bertan, I. Antzerkizale Saria ere banatuko dute, Iñaki Beobidek jasoko duena, hain zuzen **o3**

«Euskal preso politikoei elkartasuna agertzeko» jaialdia

Elkartasun Eguna izango da etzi Tolosan; ume jolasen, kalejiraren eta bazkariaren ondotik manifestazioa eta kontzertuak izango dira **o2**

Juan Eceiza
Eceiza gozotegiko kudeatzailea

«Guk badakigu kalitate bat dugula eta hori da, hain justu, gure marka»

Tolosako Urteko Merkatari Onenaren Saria eman diote Eceiza gozotegiari

Elkarrizketa o5

Euskal Herriko sokatirako finala izango da Belabieta kiroldegian

Larunbatean 17:00etatik aurrera ariko dira 4x4 goma gaineko 320 kiloko azken saioan; sei taldeetako bat Ibarra A izango da **o7**

EZAGUTU
WEBGUNE BERRIAK

www.TOLOSALDEA.hitza.info
www.IBARRALDEA.hitza.info
www.ALEGIALDEA.hitza.info
www.ANOETALDEA.hitza.info
www.TOLOSA.hitza.info
www.LEITZALDEA.hitza.info
www.VILLABONA-AIZTONDO.hitza.info



Azaroaren 30 arte %10eko deskontua iragarkia erakutsiaz

%10 deskontua

San frantzisko, 21 - Tolosa • tel.: 943 65 27 46

Elkartasun Eguna etzi, «sakabanaketa politikaren injustiziari aurre egiteko»

Egun osoan zehar adin guztiei zuzenduriko ekitaldiak izango dira Plaza Berrian eta Ferialekuan

Iñigo Terradillos Tolosa

Tolosako hainbat taldek «euskal preso politikokoekiko elkartasuna adierazi eta sakabanaketa politikak sortzen duen injustiziari aurre egiteko helburuz» Elkartasun Eguna antolatuta dute larunbat honetarako. Egun osoan eta adin guztiei zuzenduriko egitaraua prestatu dute, ume jolasak, kalejira, bazkaria, manifestazioa eta kontzertuekin osatuta.

Antolatzaileek azaltzen dutenez, «Espainiar zein Frantziar estatuek indarrean duten sakabanaketa politikak, hildako batzuk sortzeaz gain, euskal preso politikoen senide eta lagunengan sekua

lako odoluste ekonomikoa sortzen du». Eta «horri aurre egiteko» erabaki dute Elkartasun Eguna antolatzea.

«Eskubiderik gabe»

Era berean, «euskal preso politikokoek bizi dituzten muturreko egoerak» ere salatu nahi dituzte. «Une honetan, 6 dira gaixotasun larriekin preso dituztenak, eta zortzi gaixotasun larriekin espe-

txealdi arindua betetzen ari direnak; 20 urte baino gehiago daramatate espetxean 53 euskal preso politikok, eta biziarteko zigorra ezarri diete, tartean, Pello Odriozola tolosarra; bestalde, 720 euskal preso politikoko daude kolektiboan, eta hauetatik hamar baino ez daude Euskal herrian, beste guztiak etxetik ehunka edo milaka kilometrora daude».

Elkartasun Eguneako antolatzaileek «euskal preso politikoko eskubiderik gabeko pertsonak» direla gehitzen dute. «Urratuak

dituzte komunikazio eskubidea, aitasun edo amatasun eskubideak, hezkuntza eta hizkuntza eskubideak edota osasun eskubideak, eta sistematikoki bakartuak dira, isolamendura eramanak edo jipoituak, jazarriak eta mehatxatuak. Gainera, zigorgabetasun osoa dute espetxezainek beraien nahi bezalako tratua emateko».

«Etenik gabeko jazarpena»

Halaber, preso senideen «jazarpenak ez duela etenik» salatzen dute; «Miaketa umiliagarriek jarratzen dute, kontrolen eta oztopo guztien jomuga dira, eta milaka kilometroko bidaia egin beharrean aurkitzen dira senidearekin minutu gutxi batzuetan egoteko».

Antolatzaileen arabera, egoera honek sortzen du elkartasuna, «elkartasunak injustizian baitu sorburua». Hala, diotenez, «espetxe politika anker honen ondorio



Herenegun Elkartasun Eguna aurkeztu zuteneko unea. I. TERRADILLOS

↓ Elkartasun Eguna

LARUNBATA, HILAK 20

- **10:30.** Ume jolasak, txotxongiloak... Plaza Berrian.
- **Eguerdian.** Kalejira trikitixa eta dultzaineroekin.
- **14:00.** Bazkaria, Plaza Berrian (15 euro, langabetuek 10; txarrelak ohiko tabernetan salgai).

zuzena da gure herrian euskal preso politikokoek dagoen elkartasun mugimendua». Mugimendu horrekin bat eginez, Tolosaldeko nahiz Euskal Herriko herri-

- **Bazkalostean.** DJ Bull.
- **18:30.** *Elkartasuna ez da delitua. Euskal Presoak Euskal Herriara dagozkien eskubideen jabe* lelopean manifestazioa.
- **22:00.** Betagarri, Kantaflor, Egurra ta Kitto, Ze Esatek eta Laket taldeen kontzertua, Ferialekuan (Ohiko tabernetan, 10 euroan salgai).

tar oro animatzen dute Elkartasun Egunean parte hartzea, eta horrela «euskal preso politikoei elkartasuna adieraztera».

● tolosa@hitza.info

Skate pista eraikiko dute Usabal kiroldegian

Martxorako prest egotea espero du Udalak; street modalitaterako 700 m2 izango ditu

I. Terradillos Tolosa

Abenduko zubiaren ostean hasiko dira Usabal kiroldegian skate pista eraikitzeko lanekin, eta datorren urteko martxorako prest egotea espero dute. Udalak azaldu duenez, azpiegitura hau «herriko gazteen beharrei erantzuna ematera dator».

Izan ere, duela sei urte hasi zen herrian skate park bat egiten hasi-

teko prozesua. «Garai hartan Udalar kirol hau egiteko gune baten eskaera egina genion, baina urtean zehar hainbat skate txapelketa antolatzea mugatzen zen», azaltzen dute.

700 m2-ko gunea

Aurten, ordea, hainbat bilera izan dituzte, eta proiektuari eutsi eta aurrera egitea erabaki du Udalak. «Skate park-aren kokagunea eta izaera adostu ondoren, Udaleko arkitektoak bi proiektu jarri zituen mahai gainean, eta hori ere denen artean aukeratu genuen». Bada, irailean lehiaketara zabaldu zuten eta dagoeneko izendatua dago 150.000 euroko aurrekontua duen azpiegitura erai-

kitzeko enpresa. Gune berriak 700 m2-ko zabalera izango du, eta street modalitaterako erabili ahalko da.

Tolosatik atera gabe

Gazteek azaltzen dutenez, beste herri batzuetara joan beharra izaten dute kirol hau egitera. «Hemendik aurrera Tolosan geldituko gara, eta ziur kirol honen zaleatasuna areagotu egingo dela».

Oscar Renedo kirol zinegotziak adierazi duenez, «Udaletik aisirako doakoak eta onuragarriak diren erabilerak izango dituen gune honen aldeko apustua» egin dute. Halaber, berak dioenez, «oso garrantzitsua» da gazteekin izan duten «elkarlana».



Beotibar pilotalekuaren atzealdean aritzen dira skatean gazteak. I.T.

ANOETAKO HERRI IKASTOLAK LANPOSTU BATERAKO DEIALDIA EGITEN DU

LANPOSTUA:
• Hezkuntza Laguntzako Espezialista.

ESKAKIZUNAK HIRU HAUEK DIRA:

1. Ondoko titulazioaren bat edukitzea:
-Goi-Teknikaria Gizarte Integrazioan edo Haur Hezkuntzan.
-Teknikari espezialista, gutxitu psikikoen hezitzailea.
-Teknikari espezialista gizarte- adaptazioan.
-Teknikari espezialista haurtzaindegietan.
-Teknikari espezialista, haur hezitzailea.
2. Magisteritza Titulua HT-n.
3. EGA.

CURRICULUMAK anoeta@ikastola.net-era bidali.
EPEA: AZAROAK 30. Argibide gehiagorako: 943 65 29 32

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Garbitzaileak.** Jatetxe batek, sukaldeko garbiketara lanak egiteko pertsona bat behar du. As-teburuetarako. 617 43 88 19.

OPARITZEKO

■ **Txakurkumeak.** Arratoi eta ehiza arraza nahasketa. Lau hilabete ete erdi dituzte. Deitu 645 70 68 21 zenbakira.



Larunbatean egingo den Antzerkizale Eguna Mintzolan aurkeztu zuten. Ekitaldian pailazoak ere izan ziren. . E.MAIZ

↓ Antzerkizale Eguna

AZAROAK 27, LARUNBATA

- **11:00.** Antzerkizale egunaren hasiera. (Erreboteko Plazan).
- **11:30.** Porrotx eta Marimototsekin, kalejira eta pregoia.
- **Ondoren.** Poxpolo eta konpainia.
- **13:15.** Kale animazioa, Txerriki, Alproja, Kukuka,...
- **14:30.** Bazkari herrikoa.
- **16:30.** Haurrentzat txokolatea eta buruhandiak.
- **17:30.** Antzerki pieza motzak: Ixabel Agirresarobe eta Mikel Laskurain, Hirualanbrikak, Battitta lau ttitta eta Abarka.
- **20:00.** I. Antzerkizale Saria. Gurea antzokian. Sarrerak: 10 euro balio du. Oinkari dantza taldea, Eneritz Artetxe & Eñaut Gantxegi eta Kontxu Odrizolaren parte-hartzearekin. Eta Edurne Agirrezabalaren, *Sarean Zintzilikatua*.
- **23:30.** Dantzaldia DJ Bullen errikmora (Onddo Gaztetxean)
- **Oharra:** Tiketak eta sarrerak antzerkizale@hotmail.com-en.

I. Antzerkizale Eguna gurean

Egun osoko festa prestatu dute Villabonan; lehen Antzerkizale Saria Iñaki Beobidek jasoko du

Eneritz Maiz Villabona

Larunbatean, I. Antzerkizale Eguna ospatuko dute Villabonan. Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak (EHAZE), Villabonako Udalaren eta Villabonako Euskal Herrian Euskarazen laguntzarekin antolatu du. Egun osoko festa izango da eta egun horren baitan EHAZE lehen Antzerkizale Saria banatuko du.

Udan, Mintzolan sortu zuten EHAZE eta leku berean aurkeztu zuten Lehen Antzerkizale Eguna eta baita lehen saria nork jasoko

duen ere. «Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteak bere buruari ezarririk zeregin garrantzitsuenetakoan artean, euskal antzerkigintzari gizartearen behar duen presentzia eta prestigio ematea da», adierazi zuen Idoia Gereñu elkarteko idazkariak.

Euskaraz egindako antzerkia «oso egoera debalutuan» aurkitzen dela adierazi zuten eta «euskarazko antzerkia kultura globalizatzailearekin lehiatu behar duen inurria da» azpimarratu nahi izan zuten.

Egoera horri buelta emateko lagungarria izango delakoan sortu du EHAZE Antzerkizale Saria. Euskal antzerkigintza bere osotasunean hartu nahi izan dute. Euren asmoa, eman dituen eta ematen dituen fruituei benetan duten balioa ematea eta gizartera zabaltzea izango da. Jaio be-

rria den EHAZE, etorkizunari begira jarri du bere ahalegina, baina gogoan dituzte aurreko urte guztiak. «Ez gara ezerezetik sortzen, historia bat dago gure atzetik», gogoratu zuten. I. Antzerkizale Saria erabakitzerakoan ere hori egin dute, «nondik gaitoen jakite aldera, gure historia hurbilenari begira jarri gara», zehaztu zuten.

Horregatik jarri dute begirada hirurogeiko hamarkadan, bertan aurkitzen baitira gaur egungo antzerkigintzaren aurrekariak.

Iñaki Beobideri lehen saria

Hirurogeiko hamarkadaz hitz egiterakoan eta antzerkiari dago-kionez, EHAZEkoen ustez, Iñaki Beobideren izena aipatu behar da ezinbestez. «Hizkuntzarekiko kezka bultzatuta, Jarrai antzer-

ki taldearen sortzaileetako bat izan zen Iñaki Beobide. Bere zuzendaritzapean, euskal antzerkiaren barruan korronte berri-tzailearen buru bihurtu zen Jarrai taldea. Badaezpadako baldintzetan, Donostiako Urbietako kaleko Aurrera jatetxean azpitoean egiten zituzten antseguak, partaide kopurua aldakorra zelarik» gogoratu zuten.

Izen ezagunen artean, besteak beste, Arantxa Gurmendi, Ramon Saizarbitoria, Txaro Arteaga, Xabier Lete, Ashen Egaña, Joxe Mari Aristi, Xabier Goena-ga, Mertxe Uranga, Karmele Es-nal, Mikel Azpiazu, Mikel Forca-da eta Rikardo Ugarte eszenogra-fio moduan aipatu nahi izan zituzten. Taldeak, bere hamar ur-teko ibilbidean, hoguei antzezlan antzeztu zituen, arrakasta handiz eta Iñaki Beobideren eskutik, Ja-

rrai taldeak berritasunak ere eka-ri zituen. Gaien aldetik ere talde-ak apurketa bat eman zuen ordu-arte egiten zen euskarazko antzerkian. Euskal gizarte berriaren arazoak eta kezkek jaso zituzten eta testu faltaren aurrean, itzulpenaren bidea ireki eta kanpoko dramaturgo ezagunen lan asko antzeztu zituzten. Ho-rrek ez du esan nahi, euskal ant-zerkigileen lanak baztertu zituz-tenik, hala ere.

Euskal eszena gaurkotzeko kezka bultzatuta, industrializa-zioaren ondorioz etengabe alda-zen ari zen gizartearen isla izan zitezkeen gai eta konfliktuak es-zenaratzea erabaki zuten. Hiz-kuntzarekiko kezka ere presente izan zuten eta batuaeren aldeko apustua egin zuten. Laburbilduz «korronte modernoetara eramán zuten hemengo antzerkia» esan zuten elkarteko kideek.

GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN ETORKIZUNEN EREDU BERRIA



MAITE ETXANZ
Gizarte Politikoko Foru Diputatuak

Gizarte zerbitzuak eskubide subjektibo gisa onartuak izan dira, pertsona guztiarentzako eskubideak dira, pertsona guztiak beren bizitzaren egoera zein une desberdinetan erabili ditzaketenak.

Ongizate ekonomikoari begiratuz gero, gizarte kohesio handia dago Gipuzkoan. Eta heremendik aurrera ere halaxe izan behar du. Krisi ekonomikoak ezin ditu gizarte zerbitzuak murriztu eta zalantzan jarri, hezkuntza eta osasuna zalantzan jartzen ez dituen bezalaxe, hirurak baitira ongizatearen funtsezko zutabe.

Gizarte zerbitzuetan ez dago bezerorik, pertsonak baitik. Beraz, pertsonen beharretara egokitu eta bere inguru hurbilean behar dituzten zerbitzuak eskaini behar dizkiegu.

Gure departamentuak eredu berri bat erakiki du, eragile politiko eta sozial guztien artean adostasun maila handia bildu duena, eta dagoeneko erabiltzen hasita gaudena.

Gipuzkoa, gizarte zerbitzuen iraunkortasuna bermatu behar duen gizartea da.

Gizarte Politikoko Foru Diputatuak
Departamentuak & Politika Sozialak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazioa Foru Diputatuak

Zuzendariari

Gora Xexili Eguna!

Eskerrik asko Xexili Egunean parte hartu zenuten guztiei. Eskerrik asko jai hau gogoz eta ilusioz antolatzen lagundu duzuen guztioi, aurten bereziki Anoetako herriari, dendariei eta udal ordezkari.

Zorionak ikasle guztiei erakutsitako maila ederragatik, eta aurreko asteetako entseguetan egindako lanagatik. Gurasoei, (Anoeta, Irura, Ibarra, Villabona, Altzo, Alegia, Aduna eta Zizurkil) ilusia eta gogoia zabaltze-

agatik gure eskerrik beroena. Anoetako herriari harrera ezin hobe egiteagatik eta guztiak eroso eta ondo senti arazteagatik, eskerrik asko.

Esker onak bidali eta gero, lanean jarraitzea besterik ez zaigu geratzen eta musikaz gure herriak eta herritarrak hezteko eta hazteko dugun konpromisoarekin aurrera jarraitzea. Eskerrik asko.

■ **Miren Mujika.** Loatzo Musika Eskolako zuzendaria.

Irudia > Aduna



IPIUINEN ARTEAN

Kultur Astean, atzo Oihana Etxegibel ipuin kontalaria izan zen Adunan. Herriko txikienek, ahoa zabalik entzun zituzten kontatuko ipuin, olerki eta asmakizunak. Helduek, lehen sektorea eta elikagai ekologikoen inguruko hitzaldia izan zuten. E.MAIZ

IRRIEN LAGUNAK KIVBA
irrienlagunak.com

Azaroaren 27an eskuratu Pirritx eta Porrotxen 'Irria' aldizkaria zure kioskoan

BERRIA + 2€

> Laburrak

Bularreko minbiziaren inguruko hitzaldia, bihar

ALKIZA > Bihar AECC elkarteak den Maider Sierrak Bularreko minbiziaren prebentzioaren inguruko hitzaldia eskainiko du herritar guzientzat. 19:00etan hasita Alkizako Kultur Etxean izango da. Hitzaldiak irauten duen bitartean, haurtzaindegi zerbitzua egongo dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Topic-en lehen urtea ospatzeko ate irekiera

TOLOSA > Ostirlean Topic-ek atea ireki zituela urtebete izango da. Hori dela eta, lehen urteurren honetan, ate irekien jardunaldiak egingo dituzte. Interesa duen edonork doan sartzeko aukera izango du. 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara, museo-ko eta antzokiko atea zabalik egongo dira. Proiekzio bat ikusteko aukera ere egongo da. Arratsaldean, txapak egiteko aukera ere izango da kanpokaldean.

Zumarragako azokara joateko izena ematea

IRTEERA > Aitzondo Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta, abenduaren 13an Zumarragako azokara irteera egingo dute. Santa Luzia eguna ospatuko dute eta arratsaldean Getariatik buelta egingo dute. Izena emateko azken eguna hilaren 29a da. Izena 943 69 39 30 telefonora deituz eman daiteke. Autobusa 08:00etan Larrauldik aterako da eta 8:15ean Alkizan izango da. Jarraian, 08:30ean Zizurkil Goian eta 08:45ean Adunatik pasako da.



Argazki lehiaketako 40 argazki ikusgai daude Gurean. Zure gustukoena bozkatzeko aukera dago. HITZA

'Chogoriren bi aurpegiak' ezagutzeko aukera Gurean

20:00etan hasiko da Alberto Zerain proiektzioa. Argazki erakusketa ere ikusgai dago

Eneritz Maiz Villabona

Villabonako Aizkardi Mendi Elkartea, 27. Mendi Astean murgilduta dago. Astelehenean hasi zituzten emanaldiak. Peru Koloretan ezagutzuz hasi zuten astea eta

Mont Blanc eta perretxikoen ezaugarriak ere ezagutu dituzte.

Gaur 20:00etan, Gurea Zine-man *Chogoriren bi aurpegiak* proiektzioa ikusteko aukera izango da. Bihar berriz, Josu Bereziartuaren *Familiarekin Himalayan* izango da.

Igandean mendi ibilaldia egingo dute eta mendi asteari amaiera ondo emateko, bazkaria egingo dute. 08:30ean Olaederra kiroldegitik abiatuko dira eta nahi duen bertan parte hartzeko aukera izango du.

Hilaren 14ean, Aizkardiko III. Argazki Rallya egin zuten. Argia izan zuten gaia eta bertan parte hartu zutenen 40 argazki daude ikusgai.

Erakusketan dauden argazki gustukoeneri bozka emateko aukera dago. Lehen hiru argazki onak sarituko dituzte ostiraleko proiektzioaren ostean.

> Mendi Astea

GAUR

■ **Alberto Zerain.** *Chogoriren bi aurpegiak*, ikusteko aukera izango da Gurean 20:00etan.

AZAROAK 26

■ **Josu Bereziartua.** *Familiarekin Himalayan* ikusi eta entzuteko aukera izango da Gurean 20:00etan.

AZAROAK 28

■ **Mendi ibilaldia eta bazkaria.** 08:30ean Olaederra kiroldegitik abiatuko dira.

LEIHO ISOLATZAILEAK



- ALUMINIOZKO LEIHOAK
- PVC-EZKO LEIHOAK
- DESKONTU BEREZIAK

943 69 84 39

Juan Eceiza • Eceiza gozotegiko kudeatzailea

«Jasotako saria benetan gurasoentzat da»



L. GARCIA

I. Garcia Tolosa

Urteko Merkatarari Onenaren Saria eman diote Eceiza gozotegiari. Juan Eceiza (Tolosa, 1957) enpresako kudeatzailea da eta pozik agertu da jasotako sariarengatik. 1924ean sortua, familia-enpresa da Eceiza gozotegia. 25 langile ditu, bi denda, lantegia, eta hainbat lekutan bere produktuak sal-tzen dituzte.

Pozik hartuko zenuten saria.

Sariak beti gustura jasotzen dira. Nik gozotegian zazpi urte besterik ez daramatzat, eta batez ere ilusio handia egin zien aitari eta amari. Orain jubilatuta daude, baina bizitza guztia pasatu dute gozotegian lanean. Hau izan da etxekoek egin dieten lehenengo horrelako esker ona eta oso-oso pozik daude. Pentsatu zuten protokolozko ekitaldia izango zela, baina 70 lagun bildu ginen Topicen eta oso ekitaldi polita izan zen eta oso gustura pasatu genuen.

Beraz, gurasoak ere joan ziren sari banaketara.

Saria benetan beraientzat da. Nik jaso nuen beraiei ez zaielako gustatzen argazkietan ateratzea, baina benetan saria beraientzako da. Aitona eta amona hasi ziren, gero aitak eta amak jarraitu, gero anaiak, eta azkenean hiru anaia gaude.

Saria merkatarri elkarteak ematea ere berezia izango da, zuen lana aintzat hartu duten seinale.

Ez bakarrik jasotzea, han bertan egotea eta sari banaketan hainbat jendea biltzea asko gustatu zitzaion aitari.

Tolosa ezaguna da bere gozogintza-rengatik eta zuek zerikusia duzue horretan.

Jendeak pastelak jateko ohitura du eta nik uste dut herrian gauden gozodendak maila altukoak direla. Ez gu bakarrik: Gorrotxategi, Gozoma eta orain urte batzuk hasi ziren Gorosti eta Saizar.

Nik uste dut maila nahiko txukuna dugula.

Gozodenda horiek, gainera, parte hartenduzue herrian antolatzen diren ekimen gastronomikoetan.

Orain dela gutxi Tolosa Goxua azoka izan dugu, laster izango da Txuleta Festa, eta orain Tolosa Gourmet bezala stand bat dugu Donostiako Gastronomika Azokan. Hor tartekatzen gara dastazteak egiteko.

Krisiaren eragina nabaritzen ari al zarete?

Nabaritzen dugu, garbi gainera. Data berezietan, Eguberrietan adibidez, ez da hainbeste nabaritzen. Batez ere egunerokoan nabaritzen da. Hor pastelaren salmenta asko jaitsi da.

Nola definituko zenuke zure enpresa?

Guretzat kalitatea izan da beti garrantzitsua. Eta hortik jarraituko dugu. Lantegi berria jarri genuenean, makina asko eskaini zizkiguten lana errazteko, eta bat edo beste erosi dugu. Baina beste batzuk atzera bota ditugu, guk ditugun produktuak eta masak ez zirelako ondo pasatzen makina horietatik. Masa aldatzeko eskatzen ziguten, baina guk ez dugu hori aldatzen. Guk badakigu kalitate bat dugula eta hori da gure marka.

Harreman ezkorren inguruan egindako clown obra taularatuko dute

Bazen Behin Clown taldeak 'Zu zeu izan' obra antzeztuko du larunbatean, elizan, 18:00etan

Imanol Garcia Altzo

Bazein Behin Clown taldeak *Zu zeu izan* obra antzeztuko du etzi, larunbatean, Altzoko elizan. 18:00etan hasiko da emanaldia eta 'bullying'-a edo ikaskideen arteko harreman ezkorrak jorratzen dituzte bertan. Lau aktorek parte hartuko dute: Peio Arnaez, obra idatzi eta zuzendari lana ere egiten duena, Marijo Landaburu, Irene Alkiza eta Itziar Saenz de Ojer. Musikak bere protagonismoa du eta Luis Mari Moreno *Pirata* izan da egilea.

Clown ikastaro batetik sortu zen Bazen Behin Clown taldea. Hasiatik ikusi zuten interes sozialerako gaiak jorratu nahi zituzten clownaren bidez. «Iruditzen zaigu clowna gauzak lantzeko tresna polita dela», dio Lizartzan bizi den Itziar Saenz de Ojerrek. «Alde batetik umorea lantzen duzulako, baina baita ere oso sentikorra eta samurra delako, eta erraz iristen zarelako jendearengana».

Lehenengo obra elbarritasunaren inguruan izan zen, *Eta zergatik ez?* izenburua jarri zioten. Bigarrena suizidioaren inguruan izan zen, *Oraingoan bai* izenburupean.

Hausnarketa bultzatzeko

Altzon antzeztuko duten hirugarren obra horretan, ikastetxe baten patioan gertatzen diren hainbat unetan, lau ikasleen jarrerak eta euren arteko harremanak lantzen dituzte.


Antzezlana haurrei hausnarketa eragiteko pentsatuta dago: «Askotan dauzkagun harrema-



'Zu zeu izan' antzezlaren une bat. HITZA

nak ez dira batere positiboak», dio Saenz de Ojerrek. «Antzezlanean azaltzen diren istorioak egunerokotasunean ematen direnak dira. Eta obrak duen gauza on bat

denok islatuak sentitzen garela da, bai alde batean eta bai bestean. Denak izan garelako noizbait erasotutak eta baita erasotzaileak ere».



Helduentzat eta umeentzat

Abenduak 24 arte egiten diren erosketengatik

3 zozketatan parte hartuko duzu:

- Spa zirkuito bat
- Posada batean aste bukaera
- Paradore batean aste bukaera



Errementari Kalea, z/g
TOLOSA

Tel.: 943 67 16 30



Arropa azoka txikia Emakumezkoak zein gizonezkoak

Marka ezagunenak merkeenen pare

Azaroaren 22tik abenduaren 4ra

15 egun bakarrik!!



Astelehenetik Ostiralera:
10:00etatik 18:00etara (egardian irekia)

Larunbatak:
10:00etatik 14:00etara

Zizurkildik Asteasurako bidean biribilgurutik 200 metrotrara
Erniobidea 23, Elbarrena auzoa (Zizurkil) 943 69 04 24

Gaurkoa ere emakumeen kontrako erasoak salatzen da eguna da

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguna da gaur, zoritxarrez gaurkoan ere aldarrikatu behar dena

Rebeka Calvo Tolosa

Bukatzean den urte honetan hildako lehen emakumea Tolosan erail zuten. Elena Calen kasua ez da bakarra izan ordea, eta erailketara iritsi gabe ere, emakumeenganako indarkeria kasu asko izaten dira urtean zehar Euskal Herri osoan. Horregatik da garrantzitsua oraindik ere gaurko



Anoetako denda eta tabernetan Puntu Lilak jarriko dituzte. HITZA

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguna aldarrikatzea, XXI. mendean bagaude ere, zenbait rol indarrean jarraitzen dute eta. 1981. urtean izendatu zuten ofizialki gaurko eguna Emakumeenganako Indarkeriaren

Kontrako Eguna bezala, 1960. urtean izandako hiru ahizpen erailketaren egun berean. Mirabal ahizpak Dominikar Errepublikako gizarke-ekintzaileak ziren eta Rafael Trujillo agintariaren aginduz bortizki erail zituzten.

↓ Gaurko ekitaldiak

TOLOSA

- **19:00etan.** Bilgune Feministak deituta elkarretaratzea Triangulua plazan.
- **19:30ean.** *Emakumea gerra zibilean* hitzaldia, Lourdes Errastirekin, udaletxean.

IRURA

- **Gaur, 12:15ean** elkarretaratzea udaletxearen aurrean.

ANOETA

- **Gaur.** Tolosako elkarretaratze-erazteko deia egin dute. Era berean Puntu Lilak jarriko dituzte udaletxean, Kiroldegian eta

herriko taberna eta dendetan, besteak beste. Herritarrei ere euren etxeko leihoetan Puntu Lilak jartzeko gonbita luzatu die Udalak. Puntu Lilak eskuratzeko herriko taberna edo dendetara, Kiroldegira edota udaletxera bertara jo behar da, eta igandeara arte jarrita edukitzea eskatu dute. Bestalde, gai honen inguruan Euskal Herrian zein kanpoan argitaratu diren karteekin osatutako erakusketak jarri dute Kiroldegian. Astelehena arte egongo da ikusgai.

VILLABONA

- **Gaur, 18:30ean.** Udaletxean *Tratu onen eguna* hitzaldia Agi-

pase elkartearen eskutik.

- **Gaur, 20:00etan.** Elkarretaratzea Berdura plazan.

GAZTELU

- **Gaur, 19:00etan.** Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur Elkartearen tratu txarren inguruko tailerra genero indarkeriaren prebentzio lantzeko.

LEITZA

- **Gaur, 10:15ean.** Bilgune Feministaren hitzaldia Amazabal Institutuan eta elkarretaratzea.
- **Bihar, 17:30ean.** *Hezkidetza* tailerra Aurreran. Bilgune Feministak antolatuta.

Zuzendariari

Defendatu gaituzen

«Emakumeok biktimak, biktimak, biktimak eta abar». Instituzioetatik zein komunikabideetatik indarkeria patriarkalaren inguruan jarduten dutenean edo hau ekidite aldera hartutako neurrien arabera, emakumeak soilik biktimak gara. Honela bada, indarkeriaren izate osoa ezkatzen dute, emakumeok gure burua defendatzeko eta gure arteko elkartasun zubiak eraikitzeko dugun gaitasuna oztopatuz. Egoera hau izanik, indarkeriaren erroetara jo eta berarekin amaitzeko beharrezko den jokabide, jarrera eta tresna multzoak jarri ditugu martxan; autodefentsa feministaren izatea jarri dugu martxan.

Nekatu gara instituzioen itxurakeriaz eta martxan jarritako neurri urriez, beraz, emakume orok norbere buruan eta gorputzean ditugun gaitasunen lanetatik abiatuz egingo diogu aurre indarkeriari. Emakumeok, gure bizitzaren jabe izan nahi dugulako, subjektu agente bilakatu eta aurre egingo diegu eguneroko erasoari. Emakumeon arteko elkartasuna eta antolakuntza abiapuntu izanda, autodefentsa feministak bidelagunak ditu: indarra, babesa, autoestimua eta konfiantza. Hein batean, emakumeok bizi dugun zapalkuntzaren aurrean, hartzen dugun jarrera da Autodefentsa Feminista.

Indarra. Emakumeon kontrako indarkeria kasuak eraso isolatu moduan ulertzeak, hauek modu isolatuan ematen direla sinestaraztea dakar. Autodefentsa feministak indarra norberaren buru eta gorputzetik gandi

azaleratzea eta kolektiboki indar batuketara lortzea ditu helburu.

Babesa. Egund, emakumeon kontrako indarkeriaren aurrean abiarazitako babes neurriak asistentzia-erantzun dira. Heziketan, pertsonen garapenean duen garrantzian, sinesten dugulako, gure buruaren jabe izaten ikasten dugu, gure babesa sentitzen ikasten dugu urruneko babes neurrien menpe egon gabe.

Autoestimua. Sistema patriarkalaren estereotipoen eta sexisten eraginez, emakumeok gure buruarekiko exijentzia izugarria dugu, irudi estetiko zehatz baten gainbalioa; beti emakumeok gizonekiko eraiki gaituzte. Honela, emakumeoi, subjektu-paziente-biktima izatera mugatzen gaituzte; aldi, autodefentsa feministarekin, subjektu-agentea gaituzte sinestarazteko bitartekoak sortzen ditugu.

Konfiantza. Gure burua defendatzeko gaitasunean sinesten dugu eta ez dugu salbatzailearen zain egoteko asmorik. Beraz, golpeei, irainei, mehatxuei, emakumeok, geuk, egin nahi diegu aurre. Nahi ez duguna egiteari utzi, maite gaituela dioten erasotzaileei planto egin, gure bizi proiektuak askatasunean garatzen segitzeko hautua egiten dugu. Horretarako, konfiantza da gakoa; gure buruarekiko konfiantza landuz, lortuko baituguerantzutea. Beraz, emakumeok ditugun gaitasunen jabetzan sinetsiz eta hauek landuz; emozioen eta gorputzaren arteko lotura landuz; bakarka zein kolektiboki eguneroko eraso anitzei erantzuteko Autodefentsa Feministaren bidean martxan goaz. Martxan Autodefentsa Feministaren bidean!!!

■ **Tolosaldeko eta Leitzaldeko Bilgune Feminista.**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 18:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, aitor honetan lider garez, aukera ekonomiko gutxiak egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazina da galdu dutuna.
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazteko izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Euskal Herriko sokatirako finala jokoan, etzi

Goma gaineko 320 kiloko azken saioa jokatuko da Belabieta kiroldegian 17:00etan, Ibarra A bertan ariko da

Esti Ezeiza Ibarra

Euskal Herriko 4x4 goma gaineko sokatira txapelketako azken jardunaldia jokatuko da etzi. Ibarra Belabieta kiroldegian, 17:00etan izango da 320 kiloko mailako finala. Bertan, sei talde ariko dira lehiatzen, eta tartean, Ibarra A. Horregatik, beraien herriari jokatuta, ibartar guztiak gonbidatzen dituzte, animatzera joateko eta ikuskizunaz gozatzeko.

Txapelketako hirugarren eta azken saioa izango da eskualdean jokatuko dena. Bederatzi talde hasi ziren parte hartzen, eta horietatik hiru finaleraino kanpo geratu dira. Horietako bat, Ibarra B izan da.

Etzikoan sei talde ariko dira nor baino nor, eta denak denen aurka ariko dira tiratzen. Hauek izango dira taldeak: Ibarra A, Abadiño A, Abadiño B, Sokarri C, Berriozar eta Barrundia.

Irailan hasi zuten denboraldia eskualdeko tiralariek, neskek nahiz mutilak, eta hemendik au-

rrera norgehiagoka gehiago izango dituzte. Dena den, urte guztian zehar aritu dira lanean, eta zenbait erakustaldi ere eskaini dituzte udan. Esaterako, Martutenen, Tolosan eta Belauntzan.

Abenduaren 10etik aurrera, 250 eta 300 kilokoak

Hemendik bi astetara Euskal Herriko 4x4 goma gaineko beste txapelketa bat hasiko da. Batetik, neskena, 250 kilotakoa, eta bestetik, mutilena, 300 kilo azpikoa.

Lehen jardunaldia abenduaren 11n izango da eta bigarrena hurrengo egunean, 12an. Gainera, nabarmentzeko da, saio hau jokatzeo, berriro eskualdera itzuliko direla, Anoetan izango baita saioa. Azkenik, hemen lehen postuetan sailkatzen direnak, abenduaren 18ko finalera iritsiko dira.

Ibarra sokatira gero eta indar gehiago hartzen ari da, eta horren erakusle izango da txapelketa hau. Izan ere, nesketan bi talde ariko dira eta mutiletan, beste horrenbeste. Azken hauek Angel San Roman Auzolan taldean hainbat urtez aritutako oreretrara dute entrenatzaile. Neskek berriaz, Lander Otermin ibartarra.

Astean bitan eta hirutan, iluntzeetan, egiten dituzte entrenamendu saioak Belabieta kiroldegian. Horretarako polea bat erabiltzen dute. Hemen, jartzen



Denboraldian bete bete sartuta daude Ibarra sokatira taldekoak. A.I.

duten pisuaren arabera, indarra eta erresistentzia lantzen dituzte. Ibarra talde berria baina gogorra da. 15 eta 36 urte bitarteko gazteek osatzen dute. Hauek lanerako gogo handia dute, nahiz eta zailtasunak izan. Esaterako, argiarena. Iluntzetan Kiroldegian entrenatzen direnez, pilotalekuko argia piztu nahi baldin bada beraie poltsikotik ordaindu behar dute.

Sokatira gertuagotik ezagutzeko gonbita

Ibarra sokatira taldekoek, larunbateko saioa ikustera eta bai-

ta, kirola gertuagotik ezagutzera gonbidatzen dituzte herritarrek. Horretarako, interesa dutenek, beraiekin harremanetan jartzea besterik ez dute, edo entrenamenduetara azaltzea. Asteazkenean, 19:30etik 21:30era egiten dituzte saioak. Tiralariek azaltzen dute, sokatira, kirol osoa da, gorputz guztia lantzen da, eta ez da agresiboa.

Txapelketetan parte hartu nahi ez izan arren, sokatiran aritzeko aukera eskaintzen dute Ibarra sokatira taldekoek. Hala, «ez beldurtzeko eta probatzeko» gonbidatzen diete herritarrei.

Gaur, Patziku Perurenak bere azken lana aurkeztuko du Liburutegian

‘Goizuetan bada gizon bat’ du izena honek; 19:30ean izango da Kultur Elejiraren baitan antolatutako saio hau


Erredakzioa Leitza

Patziku Perurenak *Goizuetan bada gizon bat* lana aurkeztuko du bihar Leitzako Liburutegian. 19:30ean izango da ekitaldia Kultur Elejiraren baitan.

Mikel Laboaren bertsoak ditu oinarri Perurenaren lanak. Leitzarra, «Bertso horien baitan gordeta dagoen altxorraren bila urte askoan aritu da» eta lan horren emaitza da gaur aurkeztuko duen liburua.

Liburua ardatz hartuta, ordu-bete inguruko hitzaldia eskainiko du leitzarrak. Hala, bertaritzen direnei, bertso horien eta garai haien inguruko hainbat argibide emango dizkie. Besteak beste, kantaren letra eta melodia desberdinak lagunduko dituzte, baita ahozko kantu eta kondairak ere. Honez gain, gertaera historikoak eta XVIII. mendeko beste zenbait kontu jakingarri izango dituzte hizpide.

Kultur Elejirako ekimenekin jarraitzeko, igandean 17:00etan *Ponyo amildegian* filma ikusteko aukera izango da Leitzako Zine-



① Otordua

Eluska Jatetxean
bi pertsonentzako otordua

Euskal-Herria kalea, 12 • IBARRA
Tel.: 943 671374



② Sarrerak

Tolosan ospatuko den **Elkartasun Eguneko** kontzerturako sarrera pare

Azaroak 27 • Larunbata
22:00etatik aurrera
Tolosako Ferialekuan



③ Sarrerak

Saskibalo partidarako
sarrera pare

Azaroak 28 • 18:00etan
Donostiako Irunben



LAGUN ARO GBC
Power Electronics Valencia

④ Sarrerak

Alurr Dantza taldearen **Oinazez** ikuskizunaren estreinaldirako 2 sarrera pare

Abenduak 10 • Ostirala
22:00etan • Tolosako Leidorren



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zine eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunearn, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedunen **TXOKOA hitza**



10°
4°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	6°
HOTZENA	2°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika. **Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Eskurari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Titirijai jaialdirako sarrerak eta abonua Topic-en.

KULTUR ASTEAK

- **Aduna.** Joseba Salvadorren *Karlistaldien aztarnak Adunan* liburuaren aurkezpena, Kultur Aretoa, 20:00etan.
- **Larraul.** Kultur Etxean: *Euskal mitologiaren ipuinak* marrazki bizidunak, 17:30ean; *Euskal Herriko mitologia gentilen aztarnen atzetik* proiektzioa, 19:30ean.

HITZALDIAK

■ **Leitza.** Patziku Perurenak *Goi-zuetan bada gizon bat* lana aurkeztuko du, 19:30ean, liburutegian.

MENDI ASTEA

■ **Villabona.** *Chogoriren bi arpegiak*, Alberto Zerainen esku-tik, Gurea zinemaren, 20:00etan, Aizkardiren Mendi Astearen barruan.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Betelu.** Carrillo, A. Nagusia, 5.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.2.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Zorionak birramona!
Inaxi Agirrezabala (Ugarte).
Nik gaur 14 hilabete, eta zuk 88 urte. Muxu handi bat eta ondo pasa. Udane eta etxeokak.



Zorionak Beñat!
Familia osoaren partetik. Gaur 5 urte. Jarraitu horrelako mutil jatorra izaten.

agurrak urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak, jaunartzeak...

'tolosaldea.hitza.info'-tik Aresorainoko bidaiak, sarean

Aro berrian Internet-en garrantzia azpimarratu nahi da, ondorioz, lantaldeak konpromiso zehatzak hartu ditu

Asier Imaz Tolosaldea eta Leitzaldea

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak paperean eta Internet-en ikusten du argia. Sarean, igandean izan ezik, egunero zintzilikatzen dira eskualdeko albiste eta jakin beharreko guztiak.

Berria Taldearen aro berri honetan, eta oro har komunikabideen esanez neurturiko gizarte honetan, Internet-ek berebiziko garrantzia hartu du. Horregatik, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO lantaldeak erronka honi aurre egiteko, konpromiso zehatzak hartu ditu.

Astero astero, atal zahar eta berriak aurkezten joango gara papezko egunkarian.

'Zonaldea.hitza.info'

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK webgune berriak ditu Internet-en, guztira zazpi.

Alde batetik, nagusia aurkitzen da: tolosaldea.hitza.info

Ondoren, azpi sailak aurkitzen dira zonaldeka antolatuturik: leitzaldea.hitza.info/ibarraldea.hitza.info | alegialdea.hitza.info | tolosa.hitza.info | villabona-aiztondo.hitza.info | anoeta.hitza.info

Webgune berrien helburua gertukotasunari garrantzia ematea da. Azpi sailen barnean, Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri guztiak aurkitzen dira, euren albiste



'Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza'-ren webgune berriak. HITZA

ekin eta jakin beharrekoekin. Aldi berean, webgune nagusiak, tolosaldea.hitza.info hain zuzen ere, azpi sailtako albiste guztiak biltzen ditu.

Adibide bat jartzearen: Aresoko albiste bat leitzaldea.hitza.info webgunean dagoen *Herriak* atalean zintzilikatuko dugu lehenik, Areso zonalde horretako herria

delako. Albiste hori bera, leitzaldea.hitza.info-ren azalean ere agertuko da. Azkenik, webgune nagusiak, tolosaldea.hitza.info-k, Areson gertatua ikusteko aukera ere emango digu. Lehen esan bezala, albiste guztiak hemen agertuko baitira. Hala eta guztiz ere, argibiderik onena, sarean nabigatzean lortzen dena da.

URREA EROSTEN DUT

Momentuko ordainketa eskura

Aldatu ezazu urrea euroen truke

Edozein eskaintza hobetzen dugu

TASAZIORIK ONENA !!

Rondilla kalea 25, behea